

EAEko IRAKASLEAK

LEKUALDATZE-LEHIAKETA (ESTATALA)

Administrazioak adierazitako aurreikuspena: deialdia azaroaren hasieran argitaratzea eta prozesua burutzeko epea azaroaren 5etik 26ra izatea.

Lakuatik hurrengo DATA ORIENTAGARRIAK eman dizkigute:

Behin-behineko onartuen zerrenda:

- Maisu-maistren kidegoan: urtarrilaren 20n.
- Gainontzeko kidegoetan eta Ikuskaritzan: urtarrilaren 14an.

Behin betiko onartuen zerrenda:

- Maisu-maistren kidegoan: otsailaren 14n.
- Gainontzeko kidegoetan eta Ikuskaritzan: otsailaren 7-8an.

Behin-behineko esleipena:

- Maisu-maistren kidegoan: martxoaren 11n.
- Gainontzeko kidegoetan eta Ikuskaritzan: martxoaren 4an.

Behin betiko esleipena:

- Maisu-maistren kidegoan: maiatzaren 22an.
- Gainontzeko kidegoetan eta Ikuskaritzan: maiatzaren 23an.

Data zehatzak izatean, STEILASEk, urtero bezala, LAL-ri buruzko hitzaldi irekiak hiriburuetan antolatuko ditu. Laster helaraziko dizkizuegu hitzaldiei buruzko zehaztapenak.

EPE 2025

Administrazioak, Bigarren Hezkuntza eta Lanbide Heziketako sektore berezietako irakasle espezialisten kidegoan 1272 plazen eskaintza egongo dela jakinarazi digu. Deialdia argitaratzen dutenean, informazioaren xehetasunak helaraziko dizkizuegu.

Maisu-maistren kidegoan, 2026a baino lehenago ez dute deialdirik egiteko asmorik.

GALDUTAKO EROSAHALMENA BERRESKURATU!!

www.steilas.eus